

Kolorerik gabeko tigrea¹

Bazen behin kolorerik gabeko tigre bat. Bere tonuak, gris, zuri eta beltzak ziren. Egia esan, **antzinako pelikularen batetik ateratako tigrea zirudien!** Tigre haren berezitasunak erakarrita, mundu guztiko hainbat margolari hurbildu zen zoologikora hura koloreztatzen saiatzeko, baina inork ez zuen lortu, kolore eta pigmentu guztiek laban egiten zutelako tigrearen larruazalean.

Egun batean, **Chiflus** margolari eroa **agertu zen**. Tipo bitxia zen, hara eta hona zebilena poz-pezik bere pintzelarekin margotzen. Hobeto esanda, margotzeko plantak egiten zituen, inoiz ez zuelako bere pintzela bustitzen eta ez zuelako inolako paper edo mihiserik erabiltzen, airean margotzen zuelako. **Horregatik zioten erotuta zegoela**. Horregatik barregera eman zien guztiei tigre grisa margotuko zuena Chiflus izango zela jakiteak.

Tigrearen kaiolara sartzean, margolari eroak zerbait xuxurlatu zion animalariari belarrira; bitartean, **gora eta behera zebilen pintzela haren larruazalean**. Eta denen harridurarako, tigrearen larruazalak kolore bizi eta dotoreak berreskuratzen zituen. Denbora eman zuen Chiflusek animalia handiaren belarrira gauzak xuxurlatzen eta ilajeari ukituak ematen, emaitza ikusgarria lortu arte.

Denek ezagutu nahi zuten margolari handi haren sekretua. Chiflusek azaldu zenez, pintzela benetako bizitza margotzeko zela eta horregatik ez zuela kolorerik behar. “Egun batzuk barru aske izango zara, ikusiko duzu” belarrira xuxurlatuz lortu omen zuen tigreak bere larruazalaren koloreak berreskuratzea.

Eta giltzapeturik egoteak tigreari zekarkion tristura eta askatasunak eragingo zion poztasuna ikusita, zooko arduradunek oihanera eraman eta askatu egin zuten eta aurrerantzean ez zuen inoiz kolorerik galdu.

¹ www.cuentosparadormir.com -tik hartuta